

24

Larunbata12:00Mikel Laboa plazatik irteera

Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.
Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Kantu liburuxka beharrezkoa da. Noaua!ren egoitzan eros daiteke.
Kantu zaharrak eta berriak kalez-kale kantatzeko parada eta lagunarteko elkarretaratzea, sagardo-txinpartekin zintzurra bustiz.



28

Asteazkena17:30Udal liburutegian

Azalerako Ipuinak, Saroa Bikandirekin

Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia.
Norentzat: 0-3 urteko haurrentzat eta euren gurasoentzat.
Izen ematea: Udal liburutegian. Plaza mugatuak.
Iraupena: 40 minutu.
Giro lasaia eta atsegina sortuko dugu ukimena, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak, liburuak... baliatuz. Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan daitezke.




IKASTAROA

AITOR ETXEANDIA:
SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA
Otsailak 23, ostirala
15:30-18:30 Potxoenean
Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo baseritarren kooperatiba.
Izen-ematea: Hitzaldi bakoitza 10 € Alkatasunako telefonoan 943361114 eta alkartasuna.eus web orrian.



ERAKUSKETA

“HONA BOSTEKOAI”, UDALBILTZAREN GEURETIK SORTUAK EGITASMOKO BOST KOMIKIEN BILDUMA
Otsailak 23-Martxoak 1
Astelehenetik ostiralera: 17:00-19:30
Larunbatean: 10:00-13:00 Sutegiko erakustaretoan
“Geuretik Sortuak” Udalbiltzaren egitasmo bat da, zeinean zenbait diziplinatako sortzaile batzuek Euskal Herriko zenbait udaletan egonaldiak egiten dituzten eta ondoren bertan girotutako euskarazko lanak sortzen dituzten.
Erakusketa honek bost komikigilen lanak biltzen ditu. Iñaki Martiarena “Mattin”, Eñaut Aiartzaguena, Unai Gaztelumendi, Aritz Ibarra eta Kotetok Usurbil, Amasa-Billabona, Leitzia-Berastegi, Bera-Lesaka-Sara-Urruña eta Bergaran egindako egonaldietan tokiotan kokatutako istorio bana ondu dute, eta Axpik azala jarri die.



DEIALDIAK

SANTIXABELAK ANTOLATZEKO BILERA
Otsailak 6, asteartea
18:30 Potxoenean
Santixabel Jaien antolaketan parte hartu nahi duten guztientzako bilera irekia izango da.
KULTURA ETA SORKUNTZAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAK
Otsailak 16
Urtarrilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Kultura eta Sorkuntzako dirulaguntza deialdiak. Otsailaren 16a bitarteko epea dago proposamenak aurkezteko.
ELKARGUNEAREN BILERAK
Otsailak 3 10:00-13:30 (Udarregiko jangelan). Elkargunearen partaidetza-prozesuaren lehen saioa. Saio honetan ibilbidearen aurkezpena egingo da eta Elkargunean zer gertatzea nahi dugun hausnartu.
Otsailak 24an Elkargunerako ereduetatik ideiak hartzeko bisita bat antolatuko da.



KZ-GUNEKO IKASTAROAK

IKASTARO ETA MINTEGIAK

AURREZ AURREKOAK

SMARTPHONEAK ETA TABLETAK

Android gailua erabiltzen ikasi

Otsailak 1-9 11:00 - 13:00

Google aplikazioak zure smartphonean

Otsailak 12-22 11:00 - 13:00

MEKANOGRAFIA

Ikasi hutsetik

Otsailak 23-29 11:00 - 13:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabalda.

Irailean Kzgunea: Goizez 09:00-13:00

Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84

tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00

Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita

Goizez

1 2

5 6 7 8 9

12 13 14 15 16

19 20 21 22 23

26 27 28 29

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 · http://liburutegiak.blog.euskadi.net//usurbil/

zuen deialdiak zabaltzeko,

bidali hilaren 15a baino lehen

kultura@usurbil.eus helbidera.

USURBIL KULTURA 2024ko otsaila

1	Larunbata 19:30 Mikel Laboa Plazan	JONTXUROCK X. URTEURRENA	3
2	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO ZINEMA: "AINBO AMAZONIAKO GERRARIA"	4
3	Igandea 18:00 Egurtzegin, Kalezarren	SANTA AGEDA ESKEA	4
4	Ostirala 19:00 Kaxkoan. Kiroldegitik	INAUTERIAK: URDEREN ETORRERA	9
5	Larunbata Egun osoko jaia	INAUTERI FESTA: FAUNA	10
6	Asteazkena 18:30 Potxoenean	KORRIKA KULTURALA: "EUSKARAREN EGOERA GAUR. ZER DIOTE DATUEK?"	14
7	Ostirala 17:00 Udal liburutegian	II. XAKE TXAPELKETA: LH 1-2-3KO HAURRENTZAT	16
8	Ostirala 19:00 Sutegin	KULTURALDIA: "BIZKARSORO" PELIKULA ETA SOLASALDIA	16
9	Larunbata 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean	KULTURALDIA: TAPIA ETA LETURIA	17
10	Igandea 18:00 Sutegin	KULTURALDIA: ZTANDAP. BINAKAKO BAKARRIZKETA.	18
11	Osteguna 17:30 Potxoenean	TREBA GURASOAK HITZALDIA: "HAUR ETA NERABEEN EMOZIOEN BIDELAGUN: NOLA ZAINDU SEME-ALABEN EMOZIOAK"	22
12	Ostirala 17:00 Udal liburutegian	II. XAKE TXAPELKETA: LH4TIK GORAKOENTZAT	23
13	Ostirala 19:00 Sutegiko erakustaretoan	"HANDANTZA" KOMIKIAREN AURKEZPENA ETA "HONA BOSTEKOAI" ERAKUSKETAREN IREKIERA EKITALDIA	23
14	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazatik	KANTU JIRA KALEZ KALE	24
15	Larunbata 19:00 Sutegin	KULTURALDIA: "TOTO" ANTZERKIA	24
16	Igandea 18:00 Sutegin	KULTURALDIA: "ETXE BAT" POESIA ERREZITALDI MUSIKATUA	25
17	Asteazkena 17:30 Udal liburutegian	AZALERAKO IPUINAK	28

ERAKUSKETA

“HONA BOSTEKOAI”, UDALBILTZAREN GEURETIK SORTUAK EGITASMOKO BOST KOMIKIEN BILDUMA

Otsailak 23-Martxoak 1
Sutegiko erakustaretoan



Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara
eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus
Herriarron tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko



2024ko OTSAILA

USURBIL Kultura



Tapia eta Leturia

ZTANDAP

NOAUA! KULTURALDIA

OTSAILAK 16-17-18 24 eta 25

ETXE BAT

●● EKINTZAK

3

Larunbata 19:30 Mikel Laboa plazan

Jontxu Rock X. urteurrena

Kezka, Elektropapo, Izeberg, Viafara, Ameba eta Odolaren Mintzoa

Jontxuk hainbeste maite zituen herriko hainbat taldek bere omenezko kontzertua eskainiko dute.



4

Igandea 17:00 Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea:

Ainbo, Amazoniako gerraria

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza Gazte Elkartea.
Iraupena: 84 minutu. **Zuzendariak:** Jose Zelada eta Richard Claus.
Sarrerak: 3,20 €. usurbilkultura.eus webgunean.

Moana eta Frozen bezala, “Ainbo: Amazoniako gerraria” heroi epiko baten zeharkaldia da, Amazoniako herri indigenen bizi-eremuan barrena egiten duena. Mezu ekologista garbia dakar, natura neurritz kanpo ustiatzen dabiltzan horien aurrean. Ainbo txikia Amazoniako oihan sakonean bizi da. Ama galdu ondoren, herrixkako nagusiekin haserretu da arkulari gaztea, eta bidaia bati ekingo dio bere herria gizon zuriaren handinahi suntsitzailetik salbatzeko. “Ainbo” heroi gazte baten eta bere espiritu gidarien bidaia epikoa da: Dilo, armadilo txiki eta jostalaria; eta Urde, tapir mardula. Elkarrekin ekingo diote bilaketari, Amazoniako oihan zoragarriaren erdian dagoen euren bizilekua salbatzeko.



4

Igandea 18:00 Egurtzegin, Kalezarren

Santa Ageda eskea

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu taldea.

Zatoz egunak eskatzen dituen jantzi, makila eta farolarekin!
Herritar orori irekia dago parte hartzea. Ongietorriak izango dira bertso berriak, egun honetarako jarriak.



INAUTERIAK 2024

Antolatzaileak: Noaúa! Kultur Elkartea, Orbeldi dantza taldea, Zumarte musika eskola eta Usurbilgo Joaldunak.

OTSAILAK 9, OSTIRALA

Urderen etorrera

19:00 Kaxkoan. Kiroldegitik abiatuta.
Urderen Etorrera. Mozorrotu eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz goatzera!

OTSAILAK 10, LARUNBATA

Inauteri festa

Egun osoan, Kaxkoan.

Gaia: Fauna.
11:30 Mozorro dantza-kalejira kiroldegitik abiatuta!
12:30 – 14:00 JOALDUNak kalean zehar.
18:00 BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira.
22:30 ITZAL erromeri taldearen emanaldia frontoian.



14

Asteazkena 18:30 Potxoenean

Korrika Kulturala

Iñaki Lurrebasoren hitzaldia:

“Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?”

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, UEMA eta Korrika Batzordea.

Asko edo gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutzarako? Aurrera goaz ala atzera goaz euskararen indarberritze-prozesuan? Zer perspektiba izan ditzakegu aurrera begira? Zein paper joka dezakete udalerrri euskaldunek euskararen indarberritze-prozesuan?

Galdera horiei eta tankerako beste batzuei erantzuten die Iñaki Lurrebaso soziolinguistak hitzaldi honetan, gaiari buruz dauden datuak aztertuta.



II. XAKE TOPAKETA

Antolatzailea eta izen emateko tokia:
Udal liburutegia.

OTSAILAK 16, OSTIRALA

17:00 Udal liburutegian.
Norentzat: LH 1-2-3ko haurrentzat.

OTSAILAK 23, OSTIRALA

17:00 Udal liburutegian.
Norentzat: LH 4tik gorakoentzat.

*Taldea oso handia baldin bada, martxoaren 1ean beste saio bat egingo dugu, bi saioak adinaren arabera antolatuz.



NOAUA! KULTURALDIA

OTSAILAK 16-17-18-24 eta 25

Antolatzailea: Noaúa! Kultur Elkartea, Aginagako Eliza Zaharrarekin elkarlanean.
Nori zuzendua: gazte eta helduei.

OTSAILAK 16, OSTIRALA

BIZKARSORO. Pelikula emanaldia eta solasaldia.

19:00 Sutegiko auditoriumean.
Nori zuzendua: helduei.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
Existitzen ez den herri batean, bost istorio erreál, 1914tik 1982ra gertatuak, ahozko lekukotzetan eta idazleen testuetan oinarrituak. Haietan barna, XX. mendean zehar Ipar Euskal Herriko herri ttipi batek bizitako aldaketa sozialak agerian. Hizkuntza baten erroizte eta hurrentzea. Eta bizirik irauteko borroka. Josu Martinezek zuzendutako pelikula.

OTSAILAK 17, LARUNBATA

TAPIA ETA LETURIA. Kontzertua.

22:30 Aginagako Eliza Zaharrean.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 12€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 10€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
Tapia eta Leturiak beraien ohiko erreperatorioko kanta berreskuratuko dituzte, eta osagai eta berrikuntza ugari jositako proposamen musikál zein artistiko berria dakarte. 10 musikariz osatutako taldea lagun izango dute, trikitixa eta panderoaren soinuak “Big Brass Band” ikutuekin uztartuko dituenak.

OTSAILAK 18, IGANDEA

ZTANDAP. Binakako bakarrizketa.

18:00 Sutegiko auditoriumean.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileak, ikuskizun berri batekin datoz: Ztandap. Aurreko ikuskizunetan egin moduan, Martiarena eta Torregarai “betaurreko moreak jantzita” igoko dira oholtzara. Orgasmo arakala, maitasun erromantikoa, señoarak, elkarbizitza ... izango dituzte hizketagai horretarako, besteak beste. Kritika eginez, deseraikiz, barre eginez eta eginaraziz eztandarazi, lehertu, nahi dituzte bazterrak.

OTSAILAK 24, LARUNBATA

TOTO. Antzerkia.

19:00 Sutegiko auditoriumean.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 10€tan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 €tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
TOTO – Mafalda Bellidoren “Chucho” antzezlanean oinarritua. Agurtzane Intxaurrezagaz zuzendua eta Kepa Erraztik itzulia. Aktore lanetan Miren Gojenola eta Asier Hernandez.
Maik (Maitane) eta Joseluk (Jose Luis), TOTO txakurtxoaren kustosia partekatzen dute. TOTO galdu egin da Joselurekin zegoenean eta orain Maik ezin du imajinatu bizitza bera gabe. Maitasunik gabe.
Maik eta Joseluk, modu intentsuan eztabaidatzen dute. Eztabaidatzen dute geure bikotearekin, geure bikote guztiekin askotan egin izan ohi dugun moduan. Barrutik tragedia moduan bizi ohi diren eztabaidak, kanpotik ikusita, barregarriak eta komikoak suertatzen dira. TOTO halakoxea da, txakur guztientzat egokia den bikote komedia.



OTSAILAK 25, IGANDEA

ETXE BAT. Poesia errezitaldi musikatua.

18:00 Sutegiko auditoriumean
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 10€tan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 €tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
Testua eta gidoia: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria.
Kantak eta Soinua: Peru Galbete Labiano.

Gaston Bachelard soziologoak espazioen esanahietan murgiltzen gaitu “La poética del espacio” entseguan, kanpoko espazioez ari garenean geure barruko estantziez ere ari garelako. Nik etxearen irudia hautatu dut neure gogoen bizigune. Eta hiru denborak estekatu ditut bizigune hori ideatzeko. Bat, oroimen beroa, nondik natorren gogoratzeko. Bi, leihoak zabalik, uneari leku egiteko. Hiru, irudimena martxan, nire guraria ez ahazteko. Gelaka aritu naiz, bakean atontzeko estantzia bakoitza. Xede bakarra buruan: amets egiten jarraitzea.



22

Osteguna 17:30 Potxoenean

Treba gurasoak hitzaldia

Donna Apellaniz:

“Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak”

Antolatzaileak: Gaztelekua, Hitz Aho Guraso Elkartea, Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
Norentzat: haur eta nerabeen gurasoentzat. **Izen-ematea:** doan. usurbilkultura.eus webgunearen bidez. Plaza-kopurua mugatua da.

Hitzaldi honen bitartez, seme-alaben emozioak kudeatzeko eta zaintzeko kontuan izan beharrekoa landuko dugu, horrela, familiaren osasun emozionala zaintzeko tresna simple eta eraginkorrak eskuratzuz.
Hitzaldiaren helburuak, besteak beste, hauek dira: adimen emozionalari buruzko ezagutzak eskuratzea, emozioak zer diren jakitea, emozioak kudeatzen ikastea, haurrei beren emozioetan laguntzeko tresnak eskuratzea...
Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa). Teorian oinarrituta, egunerokoan bizitzen diren egoerak landuko dira, esperientziarekin konektatzeko eta lanketa sakonagoa egin ahal izateko.



23

Ostirala 19:00 Sutegiko erakustaretoan

“Handantza” komikiaren aurkezpena eta “Hona bostekoa” erakusketaren irekiera ekitaldia

Udalbiltzako Geuretik Sortuak proiektuaren barruan sortutako “Hona bostekoa” komiki-bilduman, bost komikilarik bost komiki labor sortu dituzte, bakoitza Euskal herriko gune batean kokatua. Hauen artean, Iñaki Martiarena “Mattin” marrazkilariak, 2023ko udan Usurbilen egindako egonaldian, “Handantza” komikia.sortu zuen
Otsailaren 23an Mattinek berak aurkeztuko du komikia eta, horrekin batera, “Hona bostekoa” erakusketaren irekiera ekitaldia izango dugu.
“Nora gaztea Donejakue bidea egiten ari da,oinez. Abenturak bizitzeko irrikaz dago. Usurbilera iristean, herria ezagutzeko aukera izango du: ondarea, ibaia, herritarrak...Bizitzako aberastasunaz ohartuko da”.

